



FORU DEKRETUA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila
Zerga Araudiaren Zerbitzua
Esp. zk.: 152/2018

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan bi hilerik behingo zatikako ordainketa arautzea.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen foru arauak ezartzen du ezen ekonomia jarduerak egiten dituzten zergadunak behartuta daudela “zerga honen konturako ordainketa zatikatuak egitera, arauz ezartzen diren baldintzetan”.

Ordainketa zatikatu horiek, martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak berriki sartutako aldaketaren arabera, bi hilerik behin, hiru hilerik behin edo sei hilerik behin egin daitezke, hori ere arauz ezarritakoaren arabera.

Martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak sartutako berritasun hori da, orain arte indarrean egon den egoerarekin alderatuz, ordainketa zatikatu bi hilerik behin egin daitekeela.

Oinarritzko arau hori betetzeko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia aldatzen da, zergapekoek bi hilerik behin egin ahal ditzaten ordainketa zatikatuak, hala egin nahi izanez gero. Horretarako, ordainketa zatikatuen oraingo araupetzea mantentzen da; hau da, hiru hilerik behin eta sei hilerik behin egiten direnak, eta araupetze hori bi hilerik behin ordaindu ahal izatera egokitzen da.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia onartzen duena.

Abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia onartzen duena, aldatzen da; hona aldaketak:

Bat. 106.bis artikulua eransten da; honela idatzita:

“106.bis. artikulua. Bi hilerik behingo zatikako ordainketen zenbatekoa.

1. Zakikako ordainketak bi hilerik behin ordaindu nahi dituzten zergadunek Foru Aldundiari jakinarazi beharko diote espresuki, dagokion idazkia aurkeztuta, zatikako ordainketei dagokien urtearen aurreko urteko abenduan.



2. Jarduera ekonomikoan hasten diren kasuetan, zergadunak zatikako ordainketak bi hilerik behin ordaintzeko aukera hautatzen badu, autolikidazioan bertan egingo du, Arautegi honen aurreko artikuluko 4. atalean ezarritakoaren arabera.

Zergadunak zatikako ordainketak bi hilerik behin autolikidatu baditu, Foru Aldundiak ofizioz egiten dituen hurrengo zatikako ordainketak maiztasun horrekin egingo direla uste izango du, salbu eta zergadunak Foru Aldundiari espresuki jakinarazten badio, dagokion idazkia aurkeztuta, tributazioa hiru edo sei hilerik behin egitea nahi duela, Arautegi honen aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera.

Jakinarazpen hori zatikako ordainketari dagokion urtearen aurreko urteko abenduan egin beharko da.

3. Zatikako ordainketak modu horretan ordaintzeko aukerak indarrean jarraituko du zergadunak Foru Aldundiari espresuki jakinarazten ez dion bitartean hiru edo sei hilerik behin tributatu nahi duela, Arautegi honen aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera. Jakinarazpen hori zatikako ordainketei dagokien urtearen aurreko urteko abenduan egin beharko da.

4. Bi hilerik behingo zatikako ordainketa zehazteko kontuan hartuko da aurreko artikuluan ezarritakoa, eta zergadunaren egoerari dagozkion ehuneko eta kopuru kengarriak bi hilabeteko epeari doituko dira.

Aurreko paragrafoan xedatzen denari dagokionez, berezitasun hauek hartuko dira kontuan:

a) Kopuru hauek ordainduko dituzte epe bakoitzean:

- Oro har, zatikako ordainketari dagokion urtearen azken-aurreko urtean lortutako jarduera ekonomikoaren etekin garbiaren ehuneko 3,33, etekin garbia zehazteko metodoa zernahi dela ere.

- Aurreko artikuluen 1. atalaren b) letran adierazitako baldintzetan nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantza jarduerak egiten dituzten zergadunak zatikako ordainketei dagokien urtearen azken-aurreko urtean garatutako jardueretatik ateratako etekin garbien ehuneko 2.

b) Aurreko a) letran zehaztutako ehunekoa aplikatzean ateratzen den kopurutik, zatikako ordainketei dagokien urtearen azken-aurreko urteko jarduera ekonomikoen etekinen gainean egindako atxikipen eta konturako sarreraren zenbatekoaren seirena kenduko da, halakorik egin bada.

c) Jarduera ekonomikoan hasten diren zergadunak hasierako urtean zatikako ordainketen autolikidazioa egingo dute eta epe bakoitzean kopuru hauek ordainduko dituzte:

- Oro har, zatikako ordainketa dagokion bihilekoan jardueratik ateratako etekin garbien ehuneko 3,33.

- Aurreko artikuluen 1. atalaren b) letran adierazitako baldintzetan nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantza jarduerak egiten dituzten zergadunak zatikako ordainketa dagokion bihilekoan jardueratik ateratako etekin garbien ehuneko 2.

Dagokion ehunekoa aplikatzean ateratzen den kopurutik, etekin garbia zehazteko kontuan hartu diren etekinen gainean egindako atxikipen eta konturako sarreraren zenbatekoa kenduko da, halakorik egin bada”.

Bi. 107.bis artikulua eransten da; honela idatzita:

“107.bis. artikulua. Bi hilerik behingo zatikako ordainketen aitortpena eta ordainketa.



Bi hilerik behingo zatikako ordainketa aukeratzen duten zergadunei Arautegi honen aurreko artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie, kontuan izanik epeak apirilaren, ekainaren, urriaren, abenduaren eta otsailaren batetik aipatutako hileen hurrengo hileko hamarrera arte bitartekoak izango direla.

XEDAPEN GEHIGARRIA.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Arautegia onartzen duen abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren 106.bis artikulua aipatzen duen bi hilerik behingo ordainketaren aukera, 2019ko ekitaldiari dagokiona, 2019ko urtarrilaren 18ra arte egin ahal izango da.

AZKEN XEDAPENA.

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta ondorioak sortuko ditu 2019. urtean egin behar diren pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagozkion zatikako ordainketetarako.

Vitoria-Gasteiz.

Ramiro González Vicente

Diputatu nagusia
Diputado General

José Luis Cimiano Ruiz

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu
Saileko foru diputatua
Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y
Presupuestos

Teresa Viguri Martínez

Ogasun zuzendaria
Directora de Hacienda